

Nik amabost urte nituala, eta ni bezela orduan gaiñerakoak ere berdin, San Frantziskoren Ordenan sartzen ziran, da Ama Birjiña Karmengoaren Ordenan ere bai, gu an giñan garaian, Gaintza'n.

Illean bein, jai-arratsaldean, prozesioa egiten zan San Frantziskoren irudiarekin, gure guraso eta baita besteak ere berdin, garai aietan esateko erri guztia. Obligazioa zala ura egitea illean bein, guri ala esaten ziguten.

Elizkizuna bukatzen zanean, errian bertan egiten genduan erromeria, gaztedia dana bertan gelditzen baitzan garai aietan, negu-partean beintzat.

Soiñua bear dantzatzeko. Nik neronek askotan jotzen nuan aoko soiñua, jendea dantzatu zedin.

Dirua pranko ematen zidaten eta ni pozik gelditzen nintzan.

Illunabarrean, amizkilla jotzean, ixildu egin bear, eta dirua zuana tabernara ta ez zuana etxera.

Geroxeago sortu zan eskuko soiñu-jole bat errian bertan, eta ura naiago ta nere irabaziak orduan bukatu ziran. Baiña dantza asko gustatzen zitzaidan. Egiten genituan saio ederrak.

Udara-garaian, inguruko errietako pestak ziran, gaztedia auzo-errietara joaten giñan dantzan egitearren, naiz-ta urrutitxo egon beste erri oriek. An baziran eskuko soiñu-jole pranko, eta aiek ikustea ere neri asko gustatzen. Neri eta bai besteai ere.

Orduan asi ziran soiñu-joleak ugaritzen, Goierri aldean beintzat.

Alaxe disfrutatzen genduan orduko gaztediak, erri aundietara joan gabe, erri txiki aietan beintzat.

Gure basarri zar ura basarri ona zala esaten zuan orduko jende askok. Baiña toki destierroan zan; erritik azkenekoa. Urrutiena ta oso zoko batean. Alde guzietara beetik gora atera bear, iñora joango bazan.

Elizara joateko ere, ordu erdi bat gutxienez sa-soikoak, eta zarrak ia ordu bete. Baiña alare ez ziran joan gabe geldituko orduko zarrak eta gazteak.

Eta eskola ere berdin. Guk eskola etxean ikasi genduan bastante. Anai zarrena Salbatierra'n egon zan bastante denboran, eta eskola ona ikasi zuan garai artarako. Erderaz ere puska bat bai. Eta neguko gau luzeetan, egunean ordu bete bat danok, bata bestea lagunduz, zerbait ikasi egiten genduan.

Eskolara, eguraldi txarretan eta neguan geiena. Bazkaltzera etxera joateko urruti, ta bertan gelditu askotan. Amar zentimoko opilla jan da pelotan ibilli, ta ostera eskolara. Andik etxera joatean, gose ederra izaten zan. Talo otzik bazegoan sobratu rik, gozoa zan orduan.

Ogia gutxitan izaten zan. Gogor samarra izanda ere, guk jango bai garai artan.

Baiña asetzen giñan otorduan zerbaitekin. Ez genduan ainbesteko goserik pasatzen. Beti edo geienean, jaten berdiña: babarruna, urdaia edo lukainka, ta taloa ta esnea.

Ura poza gaztaiñak eltzeko! Egiten genituan jan-aldi ederrak. Orduan gaztaiña asko zan euskal errietan, eta iru edo lau illabete irauten zuten.

Perira eramaten ziran anega batzuk. Baiña diru gutxi balio izaten zuan garai aietan. Gaztaiñik onena eramane da alare, zortzi edo amar pezta anega saltzen zan Billafranka'ko perian, eta astoak anega bat naikoa gure etxetik eramateko. Ain ziran bide txarrak, eta Billafranka urruti gelditzen.